

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure produktua “Kable Doigarria” ekoitzi eta aurrera eramateko, hainbat jarduera egin behar ditugu lehenengo. Produktuaren diseinua pentsatu ondoren, lan zailenari ekin behar diogu, ekoizpena. Produktuaren ideia guk pentsatuko dugu, baina ekoizpena egiteko azpi-enpresak kontratatuko ditugu, (hurrengo atalean azaltzen ditugunak).

Esan dugun bezala, guk ez ditugu kablea eta kutxa ekoizteko nahiko baliabide ezta esperientziarik ez. Kontratatutako azpi-enpresekin, kable doigarriaren kutxa eta kablearen ezaugarriak adostuko ditugu; baita modelo ezberdinak sortzeko aurkerarekin ere.

Ekoizpena baldintzatuta geratuko da, gure baliabideak hauen eskuz geratuz. Jakina, honek irabazietan eragin handia izango du, azpi-enpresa honi lanarengatik ordaindu beharko zaiolako. Dirua ondo kudeatzeko, administrazio enpresa batekin lan egingo dugu, haiek gu aholkatzeko.

Produktu hau zabaltzeko, gure web-orri korpotatiboa sortu dugu, [Electrobum](#), han produktu hori buruz beharrezko informazio osoa aurkituko duzu eta erosi ahal izango duzu; gainera, MediaMark-en eta Amazon-en salgai egongo da ere, bai fisikoki bai internetet saretik ere.

Gure produktuak merkatuan eragin asko izango balu, hau da, gende askok erosten badu eta enpresa oso ondo joango balitz, nazio osoan zehar salduko genuke. Hasieran bakarrik Euskal Herrian soilik salduko genuke, geroago, Espainiara osora zabalduko zen.

Kable honen bidez, erosleek beren telefono mugikorrerako kargagailu bat erabili ahal izateko dituzten arazoak konponduko ditugu, haiek apurtzeko beldurrik izan gabe, ez baita behar bezain luzea.